

*poetas vascos*

*Haizeak larrutzen dituenean  
desertu-aleak ondinak dira  
eta itsas-ondinak desertu.  
Haizeak maneatzten duenean  
heriotzea heze da  
bizitza lakatz.*

*Logaltzaile gabe hedatzen dira gauak  
hiri berrian  
eta xurxurietatik ez dira iaulkitzen kantuak  
haizearen gerrira.*

*Haizeak larrutzen dituenean  
gau-txoririk ez da adarretan  
eta hostoen murmurioak babesten ditu  
bidaztiaren urratsak bere noragabeen.*

---

*Begira dena eta zeruaren artean  
hondartza.  
Hondartzan, itsasoa oinpean,  
maneatu ezin denbora  
pekatarion aldera.  
Hondartzan itsasoa  
desertuan barrena ahazten dena,  
itsasoa, leguatan aurrera egin ahala  
zerua itotzen duena,  
dena aretan azalerazten baina  
oinarrimu aide tonu-bakarrekoa gordez  
bildu ahala desegiten dakiene.  
Hondartzan, desertuan,  
arraildu ezin iheslariak bere urratsak,  
betazalaren aboroan lokartzen da ostadarra.*

**Tere Irastortza**